

**EUSKAL KULTURA ETA HIZKUNTZAK:
DISKURTSOAK ETA HEGO EUSKAL HERRIKO
LIBURU-EKOIZPENA EUSKAL/ESPAINOL
ARDATZAREN ARGITAN**

Tesiaren egilea: Ibai Iztueta Azurmendi

Unibertsitatea: Mondragon Unibertsitatea

Saila: Giza Kognizioa eta Humanitateen Saila

Tesi-zuzendaria: Jesus Mari Larrazabal Antia

Tesiaren laburpena:

«Euskal kultura euskaraz baino ez da posible, ala espainolez edo frantsesez ere bai?». Euskal kulturaren eta hizkuntzen arteko harremanari buruzko galderaren aurrean erabili dugun lan-hipotesia izan da, alde batetik, galderaren beraren formulazioa baldintzatzen duten faktoreak aztertu behar direla eta, bestetik, kontuan izatea galderari emango zaizkion erantzunek inguruaren bilakaeran eragingo dutela.

Lana hipotesi nagusi horren azpitik leudekeen bigarren mailako beste lau hipotesiri jarraiki egituratu da.

Lehenengoak aurreratzen du kultur teoriak, funtsean, *gizabere*, *herri* eta *gizarte* kontzeptuen bereizketaren arabera antola litezkeela. Kultura nozioaren esanhi-ugaritasuna menderatzea helburu, atal honetan kulturari buruzko teoriak antolatzen dituen marko orokor bat osatu dugu, herri- eta gizarte-klabeen zeinupean. Bereziki Euskal Herria bezalako estaturik gabeko herrietan, kulturaz aritzerakoan klabe bat ala bestea erabiltzeak —edota erabiltzeari uko egiteak— zein ondorio izan lezakeen iruzkindu dugu. *Gizarte* eta *herri* terminoak ez oposizioan, baizik eta elkarren osagarri ulertzearen alde egin dugu.

Bigarren ataleko hipotesiak adierazten du hizkuntzak euskal identitatea konfiguratzerako orduan zein toki duen galdetzea bezain garrantzitsua dela identitateari buruzko diskurtsoek euskal hizkuntzaren ezagutza eta erabileran zein toki betetzen duten galdetzea. Arrastoan, euskal identitatea definitzeko erak hizkuntzaren ezagutzan eta erabileran modu batean ala bestean nola eragiten duen hausnartu behar dela defendatuko dugu. Euskal identitate delakoaren funtsaren aldakortasunari buruzko modaren aurka, nabarmenaraziko dugu euskaldunontzat erantzun beharreko lehenengo galdera ez dela «euskal identitatea zertan datza?» baizik eta «zer izan behar du euskal identitateak euskara normalizatzeko?».

Hirugarren atala euskal kulturaren eta *cultura vasca* / *culture basqueren* arteko bereizketa burutuz irekiko dugu: euskal kultura eta *cultura vasca* ez dira gauza bera, euskal identitatea eta *identidad vasca* gauza bera ez diren bezala. Lehena integrazioaren emaitza da; bestea, asimilazioena. Bestalde, euskal kultura izan ez arren, euskal kulturarekin lotuta dago: identitateari buruzko diskurtso bat denez, euskal kulturari arnasa eman ala kendu egin diezaioke. Tesi-lan honetan defendatuko da «¿qué es cultura vasca?» eta «zer da euskal kultura?» galderak bi enuntziatu ezberdin direla eta, ondorioz, bi erantzun ezberdin behar dituztela.

Laugarren atalean, Hego Euskal Herriko liburu-produkzioaren azterketa kuantitatibo bat eskainiko da, orain arte burutu ez den euskal/espainol ardatzak ezarritako bereizketaren argitan. Kontuan izan behar da Euskal Herrikoa ez dela euskararen gutxitzearen historia soilik, baizik eta erdaren hedapenaren historia. Hala, bataren egoeraren diagnosia ezin da besteena aintzakotzat hartu gabe egin, elkarri zentzua ematen diotelako.